ditu, bakoitzean horretarako gaitasunaren jabe izan daitezen Foruzko Ihardutze-Sailek gero hoiek ontzat ematearen kaltetan gabe.

*Azken Erabakietako Lehenengoa*

1. Lege honen ondorioz eta Autonomia-Estatutoaren 43garren Atalean agintzen denez Kondaira-Lurraldeei aitortzen zaizkien zerbitzu eta agintepideei eratxikitako ogasun eta eskubideen jabegoa edo baliapena hoiei eskuratu diezaieneko eskua ematen zaio Jaurlaritzari.

2. Erabaki honetan agintzen denez eskuratutako ogasun eta eskubideekiko arduralaritza, iraunaraztea eta aldezpena Euskal Herriko Ondare Legean ohartematen denaren arauera egiteratuko dira.

*Azken Erabakietako Bigarrena*

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dedin egunean bertan jarriko da indarrean.

2317

Azaroaren 25eko 28/1983ko LEGEA, "Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeak".

Eusko Legebiltzarrak, "Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko Azaroaren 25eko 28/1983 Legea" onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei. Beraz, Lege horri men egitea eta men eginaraztea agintzen diet Euskadiko herritar, norbanako eta agintari guztiei.

Gasteiz, 1983.eko Azaroak 25.

Lehendakaria,
CARLOS GARAIKOETXEA URRIZA.

## Zioen adierazpena

I

Autonomia-Estatutoaren 10.3 Atalak bakarreango agintepidea aitortzen dio Autonomia-Elkarteari "Eusko Legebiltzarrari dagokion barne-legegintzan". Estatutoan ohartemandako hori eginbideratzea du xede oraingo Lege honek.

Atal honek dionaren arauera, Autonomia-Elkarteak egokien eta komenigarrien eritzitako moduan araupetu dezake hauteskundegintza-bideen erakuntza, hauteskunde-auzitarako auzibide-arauak barne, azkeneko hori, Autonomia-Estatutoaren 10.6 Atalak dionaren babespean, hauteskunde-bideen antolakuntza "Euskal Herriko berarizko erakunde" bati dagozkion arauei buruzkoa denez gero.

Hala ere, zera aitortu beharra dago: 1977garreneko ekainetik orain arteko hauteskundetara erabili diren arauak larregi aldatzeak, edo gerora gauzatu daitekeena egokitu ez dakion erapidetza bat indarrean jartzeak nolabaiteko lege-segurtasunik eza sortarazi edo, gutxienez, hauteskundeetan eskuhartzen duten Politika-taldeei eta ihardutze-era ezagun batera iadanik ohituta dauden hautatzaileei okerrak, makurrak edo nahaspilak ekarri diezaizkiekeela. Erakuntzari, botoa emateko eskubideari eta agian gerta daitezkeen araugabekeria edo hauspenen aurka dauden jazarpideei buruzkoez bestetan hauteskunde-egiteraldia ahalik eta gehien erraztu beharra

coordinación entre los Territorios Históricos, sin perjuicio de su posterior aprobación por los Organos Forales en cada caso competentes.

*Disposición Final Primera*

1. Se autoriza al Gobierno para que, en virtud de la presente Ley y conforme a lo dispuesto en el artículo 43 del Estatuto de Autonomía, proceda a transferir la propiedad o uso de los bienes y derechos afectos a los servicios y competencias reconocidos a los Territorios Históricos.

2. La administración, conservación y defensa de los bienes y derechos transferidos al amparo de lo establecido en la presente Disposición se regirán de acuerdo con lo previsto en la Ley de Patrimonio del País Vasco.

*Disposición Final Segunda*

La presente Ley entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

2317

LEY 28/1983, de 25 de Noviembre, "Elecciones al Parlamento Vasco".

Se hace saber a todos los ciudadanos de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la Ley 28/1983, de 25 de Noviembre, de "Elecciones al Parlamento Vasco". Por consiguiente, ordeno a todos los ciudadanos de Euskadi, particulares y autoridades que la guarden y hagan guardarla.

Vitoria-Gasteiz, a 25 de Noviembre de 1983.

El Presidente,
CARLOS GARAIKOETXEA URRIZA.

## Exposición de motivos

I

El artículo 10.3 del Estatuto de Autonomía atribuye a la Comunidad Autónoma competencia exclusiva en materia de "Legislación interior que afecte al Parlamento Vasco". Desarrollar esta previsión estatutaria es el objetivo de la presente Ley.

De acuerdo con dicho artículo, la Comunidad Autónoma puede regular, como entienda oportuno y conveniente, la organización de los procesos electorales, incluso las normas procesales que regulan el contencioso-electoral, al amparo, en este caso, del artículo 10.6 del Estatuto de Autonomía, por ser normas que regulan una "organización propia del País Vasco", como es la ordenación de los procesos electorales.

Sin embargo, es preciso reconocer que la introducción de excesivas modificaciones en las normas que hasta el presente han regulado los procesos electorales habidos desde Junio de 1977 o el establecimiento de un sistema que no se adecue al que en el futuro pueda desarrollarse, pueden generar un factor de inseguridad jurídica o, cuando menos, elementos que pueden provocar errores, confusiones o desconcierto en las Fuerzas políticas que concurren al proceso electoral y en electores ya habituados a un determinado sistema. Es preciso simplificar al máximo el proceso electoral en todo lo que haga referencia directa a la organización, al derecho al voto y a los

..ago, elkarren kideko ihardutze-erei eustea, legezko segurta-..naren ezinbesteko alderdi izan, eta batzutan duten balioa ..naten ez zaion bakoitzaren usteona eta segurantza-..entimenaren iturri denaren uste osoz.

Horregatik, oraingo Lege honek, batzutan, Erresumako ..egebidetan ororentzat jarritakoetara joarazten du; eta, hori, ..auteskundeen alorrean zehazki ikusiz gero gai-kidetasunik ez ..hauteskunde-araupidetza bakoitzak hauteskunde bereziak ..araupetzen bait-ditu— eta ordezkotasuna izan dezan araurik ez ..ugoenez gero, Legeak Gorte Nagusietarako hauteskundeen-..ako araupidetzari ordezkotasun hau ematen diola kontutan ..anik. Beste batzutan, bestetara jo-arazte hori nahitaezkoa da. ..ori gertatzen da hauteskunde-legeekiko hauspenen alo-..rean.

Zazpi idazpuruk, erabaki gehigarri batek, aldi baterako lau erabakik eta bost azken erabakik osatzen dute Legearen egitura.

II

Orotariko erabakiei buruzko Lehenengo Idazpurua hautatzaile eta hautagaitasunaz ari da, legebiltzar-tokiak banatzeko moduaz, hauteskunde-barruti bakoitzeko legebiltzartokien zenbatekoaz, herri-agintarien egitekoen eta, bukatzeko, hauteskunde-egiteraldian hauteskunde-bideak arteztu, arauak ulertzeko moduak zehaztu, eta Legeak ematen dien zigortzezkoa barne dela, gainontzeko ahalmenak dituzten Hauteskunde-Batzordeentzat etengabeko ta benetako laguntzaile izango den Jaurlaritzako ihardutze-erakundeaz. Horretxegatik, harremanezko eta teknikazko laguntza emateko, erakunde honetako kide batzuk Hauteskunde-Batzordetako kide izango direla ohartematen da. Lehenagoko hauteskundeetan lortutako haztura ikusita, Jaurlaritzak zerbitzu batzuk egitea, inolako zalantzarik gabe, hauteskunde-ekintza aisagotzeko eta, batez ere, hauteskundetarako deiaren eta Legebiltzarra eratzearen arteko aldia laburtu ahal izateko bide izango da. Alde horretxetatik, Legeak Hauteskunde-Batzordeek benetan etengabe ihardungo dutela bermatzen du, hauteskunde-egiteraldian deia egitezko Dekretoa ezagutu dezaten egunetik bertatik bere bilkurak egiteari ekin dakizkioneko moduan.

Hautatzailetasuna ahalik eta modurik zabalenean araupetu da, gara-adinarekin, hautatzaile-erroldean sartuta egotearekin eta herri eta politika-eskubide osoen jabe izatearekin kidekatuz.

Hautagaitasunik ezaren eta elkartuezin aren baldintzek, lehenengo eta behin, aginteen banakuntzaren arauerako irizpidea argi eta garbi dute xede. Alde batetik Euskal Egintzapide eta Legegintza-aginteen arteko banakuntza denez, eta bestetik, berriz, euskal aginteen eta erresuma-aginteen arteko banakuntzaren aldetik. Bigarrenez, hauteskunde-bideen garbitasuna eta norberekoikeriarik eza bermatze-xedezko hautagaitasun-ezinak jartzen dira. Azkenean, eta erapidetza-alorreko zioegatik, herri-ihardun moeta batzuentzako berariazko manu batzuei darizkien hautagaitasun-ezin batzuk errepikatu ez, baina Legeak horretara jo-arazten du, oinarrizko eskubide batekiko mugapenak direnez gero mugapen hoiek Lege-bidez egitea beharrezkoa denarren.

Oinarri-irizpide hoietatik abiatuta, barruti bakar baterako indarra baizik izan ez dezaten karguak izan daitezenarren, hautatu ezinak Autonomia-Elkartearen mugarte osoa hartu behar dutela erabakitzen da eta gainera, beti, hautatu-ezinaren zioak elkartuezinen zio izan behar dutela, zio hoiei Diputadu-Batzarreko kide izatea gaineratzen zaiela.

recursos de que se dispone frente a posibles irregularidades o infracciones, con el convencimiento de que mantener procedimientos homogéneos introduce un factor de confianza y de seguridad subjetiva, componentes indispensables de la seguridad jurídica no siempre valorados suficientemente.

Por ello, la presente Ley remite en ocasiones a lo prevenido con carácter general en la legislación del Estado; si bien, habida cuenta de que en materia electoral no existe norma supletoria por no darse identidad de objeto en sentido estricto —cada norma electoral regula diferentes procesos electorales—, la Ley atribuye tal carácter a la normativa reguladora de las elecciones a Cortes Generales. Esta remisión, en otros casos, es obligada. Así ocurre en materia de delitos electorales.

La Ley se estructura en siete títulos, una disposición adicional, cuatro disposiciones transitorias y cinco disposiciones finales.

II

El Título Primero, de disposiciones generales, trata de la condición de elector elegible, sistema de atribución de escaños, número de escaños por circunscripción electoral, deberes de las autoridades públicas y, finalmente, organización del Gobierno que, con carácter permanente efectivo sirva, en el proceso electoral, de eficaz apoyo a las Juntas Electorales que dirigen dicho proceso, interpretan las normas y tienen las demás potestades, incluida la disciplinaria, que les atribuye la Ley. Por ello mismo, se prevé la presencia de miembros de dicha organización en las Juntas Electorales a fin de facilitar la comunicación y el apoyo técnico. La prestación de determinados servicios por el Gobierno, vista la experiencia de pasados procesos electorales, ha de permitir, sin género de dudas, una mayor fluidez del proceso electoral y, sobre todo, hará posible que el plazo que media entre la convocatoria de elecciones y la constitución del Parlamento se acorte. En este mismo orden de cosas, la Ley asegura el funcionamiento realmente permanente de las Juntas Electorales de manera que puedan comenzar a celebrar sesiones dentro del período electoral, desde el mismo día en que tengan conocimiento del Derecho de convocatoria.

La condición de elector se ha regulado con el carácter más amplio posible haciéndola coincidir con la mayoría de edad, la inscripción en el censo y el disfrute pleno de los derechos civiles y políticos.

Las condiciones de inelegibilidad e incompatibilidades orientan a garantizar con nitidez, en primer lugar, el principio de separación de poderes entendido en un doble sentido. Por un lado, como separación de poderes entre el Ejecutivo y el Legislativo Vasco; por otro, como separación entre poderes vascos y poderes estatales. En segundo lugar, se establecen inelegibilidades encaminadas a garantizar la transparencia y objetividad del proceso electoral. Finalmente, y por razones sistemáticas, no se reiteran inelegibilidades que derivan de disposiciones particulares para algunos tipos de funciones públicas, sino que la Ley remite a ellas, si bien, por tratarse de limitaciones de un derecho fundamental, se requiere que las mismas se establezcan por Ley.

En razón a los anteriores principios, se concluye que las inelegibilidades deben afectar, aun cuando se trate de cargos con jurisdicción en una sola circunscripción, a todo el territorio de la Comunidad Autónoma y que las causas de inelegibilidad deben ser también, en todos los casos, causas de incompatibilidad, a la que se incorpora la condición de miembro del Congreso de los Diputados.

III

Bigarren Idazpuruak hauteskundeen erakuntza du gai.

Epailaritzakoen lehendakaritzapeko eta Epailari, Auzimaisu, Legelariz edo Lege-alorreko lanbidedunez osatutako Hauteskunde-Batzordeen bidezko erapidetzari eusten zaio. Auzi-maisuek honetan eskuhartzearen komenigarritasunak, hoiek Epaitegi Nagusiko Auzimaisuak izatea aholkagarri egin du. Epaitegi Nagusi hori, ordea, oraindik eratu gabe dagoenez gero, behin-behingorako Bilboko Lurralde-Auzitegikoei izendatu zaie egiteko hori.

Hiru moetako Hauteskunde-Batzordeak daude: Bere egoitza Legebiltzarrean izango duen Autonomia-Elkarteko Batzordea; aginte-eremuz Kondaira-Lurraldea hartzen duen Kondaira-Lurraldearen mailakoa, eta agintepidez epailaritza--barrutietako bakoitza hartzen duen Eskualdekoa.

Legea ulertzeko moduarekiko iritziak bateratzeko Autonomia-Elkarteko batzordeak bertan eskuhartzea funtsezko gertatzen deneko iritzi-eskatzezko erapidetzaren ardatza Batzorde hori izan dedineko ahaleginak egin dira eta, horregatik, politika-alderdiek, batasunek edo baterakundeek artez Batzorde horrengana jotzea legezkotzen da. Xede horixe bera du horren Erabakiak beheragoko mailako Batzordeei jakinarazteak, eta bere orokortasuna dela eta komenigarri izan dedinean erabaki hoiek iragartzeak ere.

Hauteskunde-Sailekiko hauteskunde-erakuntza Eusko Jaurlaritzari uzten-zaio, inola ere Hauteskunde-Batzordeei alderdikeriarik ezarentzako ezinbesteko baldintza ez den arduralaritza-lana kenduz.

Egitekoz dagokien Sailaren tegian hauteskundeak eraz arteztea duten Hauteskunde-Mahaiak zozketaz izendatutako Mahaipuru batek eta Laguntzaile batek, politika-alderdien, baterakundeen, batasunen eta hauteskunde-bazkunen izeneko artekariek osatuko dituzte, guztiek eginbehar berdinekin, herri-zuduzko ihardunean ari direnarren hautagai-zerrenda baten egiten duten artekaritzaren zernolakoen berarizkotasunak hoiei hauteskundeak artezteko arduralaritza-ahalmenari datxezkon eskubideak ematea eragozten badu ere. Artekari izateko, ahaldun izateko bezala, hautagai izatea baino ez da beharrezkoa.

IV

Hirugarren Idazpuruak Jaurlaritzaren 1981garreneko Ekainaren 30eko Legeari egokituz Lehendakariaren Dekretoz egin beharko den hauteskundetarako deia du gai. Hauteskunde-aldia ahalik eta gehien laburtzeko xedez, 46garren Atalak deia egitezko Dekretoa argitaratu dedin egunetik eta hauteskundeak egin daitezenerarte gutxienez hogeita hamasei eguneko aldi bat eta gehienez berrogeita bostekoa jartzen du, guztiek benetan jakin dezaten Autonomia--Elkartean ateratzen diren egunkari guztietan argitaratu beharra eta beste gizarte-iragarpide batzuen bidez ere zabaldu beharra agintzen dela.

V

Laugarren Idazpuruak hautagaien aurkezpenari edo aldarrikapenari buruzkoak araupetzen ditu. Hautagai batzuezko hauteskunde-barrutikako heintasunaren arauerako erapide bat denez gero, Aurkezpena politika-Alderdien, Baterakundeen eta Hauteskunde-Batasun eta Bazkunen esku uzten da, azkeneko bi hoiek direnerako berarizko arauak jarriz.

Elkarteekiko araupeketak, elkartuta aurkezten diren alderdi edo baterakundeei hautagai-zerrendak berenez aurkeztea debekatu egiten die. Halaber, hauteskundetara aurkezten diren politika-taldeei, hauteskunde barruti bakoitzean

III

El Título Segundo trata de la organización electoral.

Se mantiene el sistema de Juntas Electorales presididas por miembros del poder judicial y formadas por Jueces, Magistrados y Juristas o Profesionales del Derecho. La conveniencia de que formen parte de la misma Magistrados ha aconsejado que sean Magistrados del Tribunal Superior de Justicia. No estando éste todavía constituido, se ha atribuido transitoriamente dicha condición a los de la Audiencia Territorial de Bilbao.

Tres son los tipos de Junta Electoral: La Junta de la Comunidad Autónoma, cuya sede se fija en el Parlamento; la de Territorio Histórico, cuya jusdicción abarca a cada circunscripción electoral, y la de Zona, con competencias circunscritas a cada partido judicial.

El sistema de consultas, en el que es fundamental la intervención de la Junta de la Comunidad Autónoma a efectos de unificar los criterios de interpretación de la Ley, se ha procurado centralizar en la misma; por ello, se legitima a los partidos políticos, coaliciones o federaciones para dirigirse directamente a la referida Junta. Igual sentido tiene la comunicación de sus resoluciones a las Juntas de ámbito inferior y su publicación cuando lo haga conveniente el carácter general de las mismas.

La organización electoral en torno a las Secciones electorales se atribuye al Gobierno Vasco, descargado así a las Juntas Electorales de un trabajo administrativo que para nada es determinante de la imparcialidad.

Las Mesas Electorales, cuya función es dirigir ordenadamente el proceso electoral en el local de la Sección correspondiente, se componen de un Presidente y un Adjunto, designados mediante sorteo, y de los interventores de los partidos políticos, federaciones, coaliciones o agrupaciones electorales, todos con los mismos deberes, si bien la particular condición de los interventores que, aun ejerciendo una función de interés general, la desempeñan por encargo de una candidatura, no permite extender a éstos los derechos que se vinculan a las potestades administrativas de dirigir el proceso electoral. Para ser Interventor, igual que para ser Apoderado, sólo se requiere reunir la condición de elector.

IV

El Título Tercero trata la convocatoria de las elecciones que deberá hacerse en congruencia con la Ley de Gobierno de 30 de Junio de 1981, mediante Decreto del Lehendakari. A los efectos de acortar al máximo el período electoral, el artículo 46 establece un plazo mínimo de treinta y seis días y un máximo de cuarenta y cinco entre la fecha de publicación del Decreto de convocatoria y la celebración de las elecciones, estableciéndose, para conocimiento efectivo de todos, la necesidad de su publicación en todos los periódicos que se editen en la Comunidad Autónoma así como su difusión por otros medios de comunicación social.

V

El Título Cuarto regula lo concerniente a la presentación o proclamación de candidatos. La presentación, tratándose de un sistema proporcional en circunscripciones plurinominales, se atribuyen a los partidos políticos, federaciones, coaliciones y agrupaciones electorales, regulándose específicamente estos dos últimos supuestos.

La regulación de coaliciones prohíbe presentar listas propias a los partidos o federaciones que concurren en coalición. Igualmente se prohíbe a las fuerzas políticasque concurren al proceso electoral presentar más de una candidatura en cada

Lege-hauspenekiko edo ondamenekiko erantzun beharra Alderdiei, Baterakundeei eta Batasunei eta Hauteskunde-Elkarteen suztatzaileei leporatzen zaie.

Irudi edo irarki-bidezko iragarkiak horretarako baimena dagoeneko tokietatik kanpo jartzea zigortu, eta hauteskundeak bukatu ondoren hauteskunde-iragarkiak kendu beharra jartzen da.

Herri-adierazpideetako dohango iragarraldiez baliatzeko bideak ere araupetzen dira, Kondaira-Lurralde guztietan hautagai-zerrendak aurkezten dituztenei eta, nolanahi ere, aurreko legegintza-aldian berenezko Legebiltzar-taldeak izan dituztenei Telebistatikako irraketa-aldi bat eta Irratitikako beste bat gutxienez emanaz.

Idazpuru honetako Bigarren Atalburuak hauteskunde-gastuak araupetzen ditu. Hoiek neurtzeari ezinezko eritzi, eta ez zaie mugarik jarri, are gehiago norbanako-jabetzapeko adierazpideen nahiz gizartean eskuhartzaile direnez bere adierazpen-askatasuna ezin murriztu dakiekeen hertsatze edo zudukide-taldeen zeharkako laguntzak egon daitezkeela eta, bestalde, lege-nortasundun direnez dirueskurapide finkoak dituzten politika-alderdien gastuak mugatzeko inolako arrazoirik ez dagoela.

Besterik da beste dirueskurapide-moeta batzuk debekatzea, bere emaitzen truke politika-bidetarako baldintzak jarri nahi lituzketenengandikakoak edo legez kontrako ekintzapidetatik datozenak adibidez.

Hauteskunde-egiteraldiango ahalik eta gardentasunik haundiena lortzen saiatuz, egindako gastuen Hauteskunde-Batzordean artapeko agiritasuna ezartzen da.

Bi neurri-moeta jartzen dira zaingo hori egiteko. Alde batetik, hautagai-zerrendek bere kontaduritza-liburua izan beharko dute; bestetik, zuritu gabeko diru-eskuraketaren edo izkutatutako gastu-atalaren hiru-alakora eta 87garren atalaren gai den dirulaguntza hartzeko eskubidea kentzera iritsi daitezkeen zigorrak ohartematen dira. Beti ere, diru-laguntza eskuratzea Hauteskunde-Batzordeak dirueskuraketa eta gastuen zuriztapenari buruzko bere erizpena eman dezanaren baldintzapean gelditzen da.

VII

Legearen Seigarren Idazpuruak, Hauteskundetegia irekitzen denean hasi eta erabakiteko boto-kontaketa eta hautatutako Legebiltzarkideen aldarrikapena egin dedinerarteko alde berezien bilbakuntza egiten du.

VIII

Zazpigarren Idazpuruak agiripaperak eta hauteskunde-jazarpenak aurkezteko eta egiteko modua araupetzen du, arduralaritza-bideei dagozkienetarako bide erraz bat jarri eta, hauteskunde-auzipidetarako, Gorte Nagusietarako hauteskundeetan gai hori antolatzen duen araupidetzara jo-araziz.

## LEHENENGO IDAZPURUA

## OROTARIKO ERABAKIAK

*Lehenengo Atala*

Euskal Herriko Autonomia-Estatutoaren 26garren atalean ohartemandakoa egiteratuz, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeak araupetzea da Lege honen xedea.

Se responsabiliza de las infracciones o daños producidos a los partidos, federaciones y coaliciones y a los promotores de agrupaciones electorales.

Se penaliza la colocación de propaganda gráfica fuera de los lugares autorizados y se establece la obligación de retirar la propaganda electoral luego de finalizadas las elecciones.

Se regula igualmente el acceso al uso de espacios gratuitos en los medios de comunicación pública, otorgándose a quienes presenten candidaturas en todos los Territorios Históricos y, en cualquier caso, a quienes han tenido grupo parlamentario propio en la legislatura anterior, al menos, un espacio en Televisión y otro en Radio.

El Capítulo Segundo de este Título regula los gastos electorales. No se ha establecido un tope a los mismos, por entender que el mismo es de imposible evaluación, máxime cuando cabe realizar apoyos indirectos ya por los medios de comunicación privados, ya por los grupos de presión o interés que, como agentes sociales, no puede ver limitada su libertad de expresión, cuando, por otro lado, no existe razón alguna para limitar el gasto de los partidos políticos que, como personas jurídicas, cuentan con ingresos propios de carácter permanente.

Cuestión distinta es prohibir determinado tipo de ingresos, como son aquellos que pueden proceder de quienes pretendan condicionar la política a cambio de aportaciones o los resultantes de actividades ilícitas.

En el intento de otorgar la máxima transparencia posible al proceso electoral, se establece la publicidad de los gastos realizados, bajo el control de las Juntas Electorales.

En orden a dicho control se establecen dos tipos de medidas. Por una parte las candidaturas deben llevar un libro de contabilidad; por otro, se han previsto sanciones que pueden llegar al triple del ingreso no justificado o de la partida de gasto ocultada o la pérdida del derecho a la subvención a que se refiere el artículo 87. En cualquier caso la transferencia de la subvención se condiciona a que la Junta Electoral emita su informe sobre la justificación de ingresos y gastos.

VII

El Título Sexto de la Ley desarrolla, en sus distintas fases, el proceso que se desenvuelve desde el momento de apertura del Colegio Electoral hasta el escrutinio general y la proclamación de Parlamentarios electos.

VIII

El Título Séptimo regula la forma de presentación y libramiento de documentos, así como las reclamaciones electorales, estableciéndose, en cuanto al procedimiento administrativo, un sistema simplificado y remitiendo, en relación al contencioso-electoral, a la normativa reguladora dicha materia en las elecciones a Cortes Generales.

## TITULO PRIMERO

## DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1*

La presente Ley, en cumplimiento de lo previsto en el artículo 26 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, tiene por objeto regular las elecciones al Parlamento Vasco.

c) Lanbidezko Gudal-sailetakoek.

d) Ertzaintzako, Arabako Foru-Diputazioaren agintepeko Miñoietako, Erresumako Segurantza-Sail eta Indarretako eta Udalzaingoetako kideek.

e) Hauteskunde-Batzordetako Lehendakari Batzordekide eta Idazkariek.

f) Lege-mailako beste manuren baten bidez hautaezintzat jotakoek.

*6garren Atala*

1. Aurreko atalean esandako kargu edo egitekoren baten ihardun eta hautagai gisa aurkeztu ditzatenek hautaezina dakarren kargua edo egitekoa erabat edo aldi baterako utzi egin dutela egiaztatu beharko dute dagokien Hauteskunde-Batzordearen aurrean, modu-sinestagarriz.

2. Hautagai-zerrenda baten egon eta hautaezintzat jotako kargu edo egitekoren batera iritsi daitezenek, egoera hori dagokion Hauteskunde-Batzordeari jakinarazi beharko diote, eta hautagai-zerrendatik kanpo geldituko dira.

*7garren Atala*

1. Hautaezin-zio guztiak bidebatez elkartuezin-zio dira.

2. Eusko Legebiltzarkide izatea Erresumako Diputadu-Batzarreko izatearekin ere elkartuezina izango da.

3. Elkartuezina sortuzko karguz, iharduna edo egoeraz jabetu ledin Legebiltzarkideak, legebiltzarkide izateari utzi egingo dio.

*8garren Atala.—Hauteskunde-Barrutiak*

Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetan, Kondaira-Lurraldea izango da hauteskunde-barruti.

*9garren Atala.—Hauteskunde-Barrutiko Legebiltzarkide-zenbatekoa*

Hauteskunde-barruti bakoitzeko hogeitabost legebiltzarkide hautatuko dira.

*10garren Atala.—Gutxienezko ehunekoa*

1. Legebiltzarkide-tokien banakuntzan sartu ahal izateko, dagokion hauteskunde-barrutian izandako baliozko boto guztien ehunetik bostekoa gutxienez atera beharko da.

2. Ehuneko hori ateratzeko, indarrik gabeko botoak eta boto zuriak ez dira baliozko bototzat kontatuko.

*11garren Atala.—Legebiltzarkide-Tokiak ematea.*

1. Hauteskunde-barruti bakoitzean alderdi edo hautagai-zerrenda bakoitzari legebiltzarkide-tokiak ematea, D'Hont-en arauak erabiliz egingo da.

2. Hauteskunde-barruti bakoitzean aurkeztu daitezen hautagai-zerrendak itxitakoak eta aldatu ezinekoak izango dira.

3. Botoen kontaketa, zerrendak botorik gehien arteratakotik hasitako hurrenkeran jarrita egingo da.

4. Zerrenda bakoitzak ateratako baliozko boto guztien biren, hiruren... etabarren arteko banaketa egingo da.

5. Legebiltzar-tokiak, hori egin eta banakin haundienak eman ditzaten zerrendei emango zaizkie, haundienetik txikienerainoko goitik beherako hurrenkeraz.

c) Los miembros profesionales de las Fuerzas Armadas.

d) Los miembros de la Ertzaintza, Cuerpo de Miñones dependiente de la Diputación Foral de Alava, Cuerpos y Fuerzas de Seguridad del Estado y Policías Municipales.

e) Los Presidentes, Vocales y Secretarios de los Juntas Electorales.

f) Aquellos otros que así sean declarados por otra norma con rango de Ley.

*Artículo 6*

1. Quienes desempeñen un cargo o función de los enumerados en el artículo anterior y sean presentados como candidatos, deberán acreditar de modo fehaciente, ante la Junta Electoral correspondiente, haber renunciado o cesado en el cargo o función que genera la inelegibilidad.

2. Quienes formando parte de una candidatura accedieran a un cargo o función declarado inelegible, deberán comunicar dicha situación a la correspondiente Junta Electoral, quedando excluido de la candidatura.

*Artículo 7*

1. Todas las causas de inelegibilidad lo son también de incompatibilidad.

2. Será incompatible igualmente la condición de Parlamentario Vasco con la de Diputado al Congreso.

3. El Parlamentario que aceptase un cargo, función o situación constitutiva de incompatibilidad, cesará en su situación de Parlamentario.

*Artículo 8.—Circunscripción electoral*

Para las elecciones al Parlamento Vasco la circunscripción electoral será el Territorio Histórico.

*Artículo 9.—Número de Parlamentarios por circunscripción*

Se elegirán veinticinco parlamentarios por circunscripción electoral.

*Artículo 10.—Porcentaje mínimo*

1. Para poder acceder al reparto de escaños será requisito que la candidatura haya obtenido, en la respectiva circunscripción, un porcentaje mínimo de votos válidos del 5 % del total.

2. A los efectos anteriores no se computarán como votos válidos los votos nulos y los votos en blanco.

*Artículo 11.—Atribución de escaños*

1. La atribución de escaños a cada partido o candidatura en la circunscripción electoral respectiva se hará por aplicación del sistema D'Hondt.

2. Las listas de candidatos que se presenten en cada circunscripción serán cerradas y bloqueadas.

3. El recuento de votos se hará ordenando las listas de mayor número de votos obtenidos por cada una.

4. Se dividirá el total de votos válidos obtenidos por cada lista por uno, dos, tres, etc., hasta...

5. Los escaños se atribuirán a las listas a las que correspondan los mayores cocientes, siguiendo un orden decreciente en la atribución de aquéllos.

Toki bat ematerakoan bi hautagai-zerrendek edo gehiagok ematen dituzten banakinak berdinak izatea gertatuz gero, ebazpena hamarrenak aterata egingo da, legebiltzar-tokia hamarren gehien izan dezan hautagai-zerrendari emanaz.

6. Aurreko zatian esandako araua erabiliz gero berdintasunak oraindik irautea gertatuz gero, legebiltzarkide-tokia bozka boto gehiago ateratako zerrendari emango zaio.

7. 5garren zatian esandako araua erabiliz banakinak eta botoen guztizkoak berdinak izatea gertatuz gero, lehenengo legebiltzarkidetokia zotz eginda emango da, eta ondorengoak txandakatuz.

8. Zerrenda bakoitzari dagozkion legebiltzarkide-tokien kopurua zenbatekoak zehaztu ondoren legebiltzarkideei ematea, zerrendan izan dezaten hurrenkerari hertsiki atxikiz egingo da.

9. Hautatutako legebiltzarkide aldarrikatutako batek bere tokia uztea, hiltzea edo ezinduta gelditzea gertatuz gero, legebiltzarkide-tokia, berez eta besterik gabe, dagokion zerrendako hurrengoari ematen zaio.

10. Era berean, legegintza-aldiak diraueno legebiltzarkidetakoren bat hiltzea, ezinduta gelditzea edo bere tokia uztea gertatuz gero, legebiltzarkide-tokia aldarrikatutako hautagai-zerrenda berean hurrengo egon dedin hautagaiari emango zaio.

11. Ordezkaketak legegintza-aldiak diraueno egin ahal izango dira.

*12garren Atala*

1. Herri-agintari guztiak, bere aginte-eremuaren barruan, Hauteskunde-Arduralaritzak bere egitekoak behar bezala bete ditzan bere laguntza ematera behartuta daude.

2. Boto-emanketaren egunean, Hauteskunde-Sail edo Mahai bakoitzerako izendatutako Aginte-eskudunak, botoak emateko tegiaren barruan edo horretarako sarpideetan edo inguruan bakeari eusteari dagozkionetan Mahaiko Lehendakariaren agintepean egongo dira.

*13garren Atala*

1. Eusko Jaurlaritzari dagokio Estadistika-Artezkaritzaren bidez Hautatzaile-Erroldea egitea eta unean-uneangotzea.

2. Era berean Eusko Jaurlaritzak, Herrizaingo-Sailaren bidez, Hauteskunde-egiteraldirako laguntza ematezko honako lan hauek egingo ditu, etengabe, boto-eskubidea bermatzeko:

a) Hauteskunde-bideak Lege honetan jarritako epeen barruan egin daitezen beharrezko izan daitezen teknikazko ekintza guztiei arta egitea eta zaintzea.

b) Hauteskundeak teknikaren aldetik behar bezala egingo direla bermatzeko Hauteskunde-Batzordeei aholkuak ematea.

c) Hautatzaileek, Hautagaiek, politika-alderdi edo Hauteskunde-Batasunek eta ezein Herri-Agintarik egin diezazkioten eskabide, iritzi-eske eta zuzenketa-eskeei erantzutea.

d) Hauteskunde-batzordeen esku diruzko eta gauzazko nolanahiko eskuarteak jartzea eta bai, Kondaira-Lurralde eta Eskualde-mailetako Batzordeei dagozkienetan, Hauteskundealdian bere egitekoa betetzeko behar ditzaketen lanariak ere.

e) Lege hau edo honen araudiak egiteratzeko araupide guztiak gertatzerakoan bere iritzia ematea.

Cuando en la asignación de un determinado puesto coincidan los cocientes de dos o más candidaturas del desempate se determinará sacando decimales en cuyo caso se atribuirá el escaño a aquella candidatura que obtenga decimales más altos.

6. En caso de mantenerse la igualdad, luego de aplicar la regla del apartado anterior, se atribuirá el escaño a la lista más votada en su conjunto.

7. Si el empate se produjera en el cociente, luego de aplicada la regla del apartado 5, y en el número total de votos, el primer escaño se atribuirá por sorteo y los siguientes en forma alternativa.

8. Una vez fijado el número de escaños que estén atribuidos a cada lista, la adjudicación a los candidatos se hará por orden estricto de colocación en que aparezcan.

9. Si se produjera renuncia, fallecimiento o incapacidad de un candidato proclamado electo, el escaño se asignará automáticamente al siguiente de la lista a la que esté atribuido.

10. De igual modo, si en cualquier momento de la legislatura se produjera el fallecimiento, incapacidad o renuncia de alguno de sus miembros, el escaño será atribuido al candidato siguiente incluido en la misma lista proclamada por el orden de colocación en que aparezca.

11. Las sustituciones serán a lo largo de toda la legislatura.

*Artículo 12*

1. Todas las autoridades públicas en el ámbito de sus respectivas competencias, tienen el deber de colaborar con la Administración Electoral para el correcto desempeño de sus funciones.

2. El día de la votación de los agentes de la Autoridad destinados en cada Sección o Mesa Electoral estarán, en lo que hace referencia al mantenimiento del orden de la votación, dentro del local y en sus accesos o proximidades, a las órdenes del Presidente de la Mesa.

*Artículo 13*

1. Corresponde al Gobierno Vasco, a través de la Dirección de Estadísticas, elaborar y tener al día el Censo Electoral.

2. Igualmente, el Gobierno Vasco, a través del Departamento de Interior, llevará a cabo, con carácter permanente, las siguientes funciones de apoyo al proceso electoral a fin de garantizar el derecho al voto:

a) Seguir y cuidar todas las acciones técnicas necesarias para que el proceso electoral se lleve a cabo dentro de los plazos establecidos en la presente Ley.

b) Asesorar a las Juntas Electorales para garantizar la debida ejecución técnica del proceso electoral.

c) Atender a las demendas, consultas y reclamaciones que le dirijan los Electores, Elegibles, Partidos Políticos o Coaliciones Electorales, así como cualquier Autoridad Pública.

d) Poner a disposición de las Juntas Electorales los medios económicos y materiales de todo tipo, así como, en relación a las Juntas de Territorio Histórico y de Zona, el personal que puedan precisar para el desempeño de sus funciones durante el proceso electoral.

e) Ser oído en la elaboración de todas las normas de desarrollo de la presente Ley o de sus reglamentos.

3. Aurreko zatien gai diren egitekoak, Hauteskunde-Batzordeei dagozkien egiteko eta agintepideen kaltetan gabekoak izango dira.

4. Atal honen 2garren zatian aipatzen den Herrizaingo-Saileko Artezkari edo Zerbitzuburua, Eusko Jaurlaritzako Estadistika-Artezkariarekin batean, Autonomia-Elkarteko Hauteskunde-Batzordeko kide izango da. Era berean, Kondaira-Lurraldeen mailako Hauteskunde-Batzordeen bilkuretara ere hoiek izendatutako ordezkariei dei egin beharko zaie, izendapen hoiek Batzordeak eratu baino lehen eginaz. Aholkuak ematea eta Hauteskunde-Batzordeekingo harremanak bermatzea izango da hoien egitekoa.

Eskualde-Batzordetan, Batzordeak bere egoitza bertan dueneko Udaleko Idazkariak eskuhartuko du edo, hala egokituz gero, Udalean Hauteskunde-Arduralaritzari datxezkon egitekoak bere gain dituen herrilanariak.

Hoiek hitz egiteko eskubidez bainan botoa ematekorik gabe eskuhartuko dute.

## BIGARREN IDAZPURUA

## HAUTESKUNDE-ERAKUNTZA

### Lehenengo Atalburua.—Orotariko Erabakiak

*14garren Atala*

Hauteskunde-arduralaritzak hauteskunde-egiterapideen gardentasuna eta bereizkeriarik eza eta herri-kargutara iristeko aukera-berdintasuna Lege honek jartzen dituen modu eta neurritan bermatzea du helburu, Epaitegiei dagozkien agintepideen kaltetan gabe.

*15garren Atala*

1. Egituraz, Hauteskunde-Batzordeek eta Hauteskunde-Sailek osatzen dute hauteskunde-erakuntza.

2. Hauteskunde-Batzordeak Autonomia-Elkarte, Kondaira-Lurralde eta Eskualde-mailakoak izango dira.

*16garren Atala*

1. Hauteskunde-Batzordeetako Lehendakaritza, Kidegoa eta Idazkaritza, eta bai Hauteskunde-Mahaietako kide izatea ere, nahitaezkoak izango dira.

2. Ezingo dute Hauteskunde-Mahaietako izan:

a) Hauteskunde-Batzordetako kide izan daitezenek.

b) Hauteskundetara hautagai gisa aurkeztu daitezenek.

c) Hauteskunde-bidezko edo nahi bezalako izendapenezko herri-kargudunek.

d) Bere herri eta politika-eskubideak erabat indarrean izan ez ditzatenek.

3. Eritetxean egon daitezen gaisoek eta gainontzekoek hori mediku-egiaztagiri baten bidez zuritu dezatenean, hauteskunde-barrutitik landa bizi direnek eta itsasontzi-lanariek, joan ezina adierazi dezakete.

4. Aurreko zatietan aipatutakoetakoren bat izendatzen badute dagokion Eskualde-Batzordeko Lehendakariari jakinaraziko dio, ordezkoa jarri dezan.

*17garren Atala*

1. Hauteskunde-Batzorde bateko kide izatea beste bateko izatearekin bateraezina da.

3. Las funciones a que se refieren los párrafos anteriores se entienden sin perjuicio de las funciones y competencias que corresponden a las Juntas Electorales.

4. El Director o Jefe del Servicio del Departamento de Interior a que se refiere el apartado 2 del presente artículo junto con el Director de Estadística del Gobierno Vasco, participará en la Junta Electoral de la Comunidad Autónoma. Igualmente deberán ser convocadas a las reuniones de las Juntas Electorales de Territorio Histórico, Delegados de ambos, nombrados por ellos, realizándose dichos nombramientos antes de la constitución de la Junta. Su función será la de asesorar y garantizar la relación con las Juntas Electorales.

En las Juntas de Zona participará el Secretario del Ayuntamiento donde tiene su sede la Junta de Zona o, en su caso, el funcionario que desempeñe las funciones vinculadas a la Administración electoral en el Ayuntamiento.

La participación será con voz, pero sin voto.

## TITULO SEGUNDO

## ORGANIZACION ELECTORAL

### Capítulo primero.—Disposiciones Generales

*Artículo 14*

La Administración electoral tiene por finalidad garantizar, en los términos de la presente Ley, la transparencia y objetividad del proceso electoral y el principio de igualdad en el acceso a los cargos públicos, sin perjuicio de las competencias que correspondan a los Tribunales.

*Artículo 15*

1. La organización electoral se estructura en Juntas Electorales y Secciones Electorales.

2. Las Juntas Electorales serán de Comunidad Autónoma, de Territorio Histórico y de Zona.

*Artículo 16*

1. Los cargos de Presidente, Vocal y Secretario de las Juntas Electorales, así como el de miembro de las Mesas Electorales, son obligatorios.

2. No podrán formar parte de las Mesas Electorales:

a) Quienes formen parte de las Juntas Electorales.

b) Quienes concurran a las elecciones como candidatos.

c) Los cargos públicos de elección o libre designación.

d) Quienes no se encuentren en pleno disfrute de sus derechos civiles y políticos.

3. Podrán dispensar su asistencia los enfermos hospitalizados y los demás cuando la justifiquen mediante certificado médico, los residentes fuera de la circunscripción electoral y el personal embarcado.

4. Si alguno de los enumerados en los apartados anteriores fuere designado lo comunicará al Presidente de la Junta de Zona respectiva para que proceda a su sustitución.

*Artículo 17*

1. Es incompatible la condición de miembro de una Junta Electoral con la misma condición en otra.

2. Hori gertatuz gero, bete beharreko egitekoa goragoko mailakoan egiteratuko da, eta biek maila berekoak izatea gertatuz gero, aukeratu dedinean.

3. Hauteskunde-Batzordetako kideak ezingo dira artezkari nahiz ahaldun-ihardunetarako izendatu.

**Bigarren Atalburua.—Hauteskunde-Batzordeez**

*Lehenengo Saila.—Osatze-Modua*

*18garren Atala.—Autonomia-Elkarteko Hauteskunde-Batzordeko Lehendakaria*

1. Autonomia-Elkarteko Hauteskunde-Batzordeko Lehendakaritza, Epaitegi Goreneko Lehendakariari dagokio.

2. Lehendakariordetza karreran aintzinakoena izan dedin auzimaisuak izango du, eta horretan berdintasuna gertatuz gero zaharrenak.

*19garren Atala.—Kideak*

1. Honako hauek izango dira Autonomia-Elkarteko Hauteskunde-Batzordeko kideak:

a) Epaitegi Goreneko lau Auzimaisu.

b) Euskal Herriko Unibertsitateko eta Deustoko Unibertsitateko Lege-Unibertsitatesailetako Dekanoak.

c) Bilboko, Donostiako eta Gasteizko Abogadu-Elkarteetako Dekanoak.

d) Bere egoitza Autonomia-Elkartearen mugartean izan dezaten Eskribau-Elkarteetako Dekanoak.

e) Legetango Lizentziadun izeneko lau kide gehienera.

2. Aurreko a) zatiaren gai diren batzordekideak epaitegi Goreneko Lehendakariaren aurrean egindako zozketaz izendatuko dira. Nolanahi ere, hala egokituz gero, hauteskunde auzipideen ardura izan behar dezaten Auzimaisuak zozketa horretatik kanpo gelditukoko dira.

3. e) zatian aipatutako batzordekideen izendapena Legebiltzarrak egingo du, bere barne-Araudiak zehaztu dezan eran. Kargua bost urterakoa izango da.

*20garren Atala.—Ordezkaketak*

1. Aurreko atalaren 1. zatiaren a) eta e) txataletan esandako Batzordekideen ordezkapena, izendapenaren modu berean egingo da.

2. Aurreko atalaren 1. zatiaren b) txatalean esandako batzordekideen ordezkotza Dekano-ordeei dagokie eta, hoien ezean, dagokien Lege-Unibertsitatesailetako Idazkariei.

3. Aurreko atalaren 1. zatiaren c) eta d) txataletan esandako batzordekideen ordezkotza, dagokien Elkarteko Eraentza-Batzordeak edo eraentzarako bateango ihardutze-sailak izendatu dezanak egingo du.

*21garren Atala.—Idazkaria*

Eusko Legebiltzarreko Legelari Nagusia izango da Autonomia-Elkarteko Hauteskunde-Batzordeko Idazkari.

2. Cuando se produzca el supuesto anterior, la función a desempeñar se realizará en la de superior jerarquía o, en caso de igual nivel, en aquélla por la que opte.

3. Los miembros de las Juntas Electorales no podrán ser designados para desempeñar funciones de interventor o apoderado.

**Capítulo segundo.—De las Juntas Generales**

*Sección primera.—Composición*

*Artículo 18.—Presidente de la Junta Electoral de la Comunidad Autónoma*

1. El cargo de Presidente de la Junta Electoral de la Comunidad Autónoma corresponderá al Presidente del Tribunal Superior de Justicia.

2. El cargo de Vicepresidente recaerá en el magistrado con mayor antigüedad en la carrera. En caso de igualdad, lo será el de mayor edad.

*Artículo 19.—Vocales*

1. Serán vocales de la Junta Electoral de la Comunidad Autónoma:

a) Cuatro Magistrados del Tribunal Superior de Justicia.

b) Los Decanos de las Facultades de Derecho de la Universidad del País Vasco y de la Universidad de Deusto.

c) Los Decanos de los Colegios de Abogados de Bilbao, San Sebastián y Vitoria.

